

## Zarauzko Ikastolari laguntza

Jakingo duzuen moduan, Hezkuntza Sailak 140.000 euroko isuna jarri dio Zarautzko Ikastolari. Informazio gehiago [hemen](#). Gure babesadierazi eta isunari aurre egiten laguntzeko, EKARPEN-BOLUNTARIOAK biltzeko kanpaina jarri nahi dugu martxan gure ikastolan ere. Hauxe proposamena:



Zuen seme-alaben bitartez jasoko duzuen sobrean, nahi duzuen ekarpena egin. Sobrea itxita, zuen seme-alaben tutoreari helarazi adierazitako epea baino lehen.

Honetaz gain, DBHko eraikineko erdiko aretoan, ekarpenak jasotzeko armairu bat ere jarri dugu EKARPEN BOLTUNTARIOAK jasotzeko. Ekarpenak egiteko azken eguna, otsailaren 21 izango da.

## Garraio publikoa erabiltzeko txartela

Euskotren-etik jakinarazi digutenez, hemendik aurrera taldeko txartela ateratzeko aukerarik ez dela egongo eta Eusko Jaurlaritzak onartu duen hobari sistema kontutan izanik, Zuzendaritza Taldeak irteeretakoko ahal den neurrian garraio publikoa erabiltzea lehenetsi du. Hori horrela, irteerak modu egokiagoan eta merkeago egite aldera,



gomendatzen da **ikasle bakoitzak bere Mugiri txartela ateratzea**. Era horretan, 12 urtetik beherakoek doan bidaiatuko dute eta gainerakoek %50eko deskontua izango dute.

## Ebaluazio frogak

Bi urtetik behin, ebaluazio diagnostikoa egiten zaie LH 4. mailako eta DBH 2. mailako ikasleei. Eusko Jaurlaritzak behartzen du froga hauek egitera eta ikasleek oinarriko konpetentziak noraino garatu dituzten ebaluatzen da. Froga hauek denentzako

berdinak dira, egokitzapenik egin gabe. Horren aurrean, Zuzendaritza Taldeak Hezkuntza Sailari bere ezinegona adieraziko dio diagnostiko edo zailtasunen bat duten ikasleei egokitzapenak egitea beharrezkoa dutelako eta beraien eskubidea delako. [Hona hemen aurkeztutako idatzia.](#)



# HAUR HEZKUNTZA

## Bilera pedagogikoak

Otsailaren 24an eta 25ean, HHko familiei zuzendutako bilera pedagogikoak egingo ditugu:

- HH3: otsailak 25
- HH4: otsailak 25
- HH5: otsailak 24

OHARRA: zaintza zerbitzua egongo da. Bilerak haurren geletan egingo ditugu.



## Inauteriak

Gogoratu laster inauteriak datozela eta zakuak prestatu behar direla. Norbaitek zakua prestatu gabe baldin badauka eta laguntza beharko balu, tutoreari jakinarazi mesedez.



# LEHEN HEZKUNTZA

## LH-ko material-kobrantza

2024/25 ikasturteko LH-ko eskola-materiala otsailaren 16an kobratuko dela jakinarazten da, hileko kuotarekin batera. Erreziboaren zenbatekoa **38,50 €** izango da.



## LH6-ko familientzat oharra

2.hiruhileko honetan, LH6ko ikasleek zesta puntako hastapen saioak izango dituzte. Ordubeteko 4 saio izango dira eta Gipuzkoako Euskal Pilotako federazioko irakasle espezialistak izango dira saio hauek aurrera eramango dituztenak. Kostua **4 €**-koa izango da.



## Hezkidetza, sexuen hezkuntza eta tratu onak eskolan

Harremanak taldearen eskutik zuen seme-alabek hainbat saio jaso dituzte eta orain gurasoentzako saioa antolatu dute. Bertan landuko diren gaiak hauek izango dira:

- Seme-alabekin izan dituzten saioetan zer landu duten azaldu, baita gela zein begiradatatik behatu duten ere.
- Haurrak nola ikusi dituzten Hezkidetza, Sexuen Hezkuntza eta Tratu Onei dagokienez: berdinen arteko harremanak, autoestimua, gorputza, emozioak, tratu onak...
- Garapenean zein momentutan dauden.
- Gurasoei haurrak gai hauetan laguntzeko gakoak eman.
- Zalantzak jaso eta zuen galderak erantzuteko tarteak izango duzue.

NOIZ: otsailak 18, asteartea, 17:00etan.

LEKUA: Agerialdeko 2. solairuan (LHko 1. zikloa)

NORENTZAT: LH5 eta LH6ko gurasoentzat.

Tailerrera etortzeko asmoa izango bazenute, [galdetegia](#) betetzeko azken eguna gaur da.



**Usurbilgo Udala**